

## LOIOLA'KO IÑIGORI JAINKOAREN DEIA

### Itz-aurrea

Gure Aita Jainkoak betiraundetik badu izango den personarentzako nor izango den asmoa. Asmo ori egitaratzekoa baldin bada, etortzeko dan orri nolabait jakin erazi bearko zaio; nola bestela *izaki* orrek etorri ala *nor-izan* asmo ori bete? Izanez-izan, *betiraundetiko* asmotan ori nor bakoitzak *izakeraz* egiztatu bearko du.

Bere jatorrizko *zer-izanean*, bakoitzari adierazten zaio dezaken *nor-izana* ere. Adierazgarri dan Espiritu Santu bizi-emailleak izanari izakeran ezaugarri egin dio *nortasun* ori. Nornairen bizibidezko gertakizunik garrantzitsuena auxe da: Espiritu-Santuak ixilpeka bizi-oinkada bakoitzean adierazgarri biurtzen duena, ori ziur entzun eta aditu bear du, orrela bere *nor-izanaren* mugara ziur elduko bait da.

Bizi-bideak, naiz leize zulo-illunpetan jarrai, naiz zelai argintsuenetan zear aurrera jo, badituzte sari askotan bea-jotze uste ezak. Bai leizetan, bai eguzkiargitan, *nor-tasun* eske ta billa abiatu den bidekaria nunnai beaztopatu liteke, bai eta bere bidearen mugara ez eldu.

Loiola'ko Iñigo jaio eta urrengo egunetako baten bataiatua da Erretore zan Zabala'tar Ion'en eskuz: une ortan bereganatu zitzaion Biziemaille dan Espiritu Santua. Lagun bizikide onegaz abiatu zen Iñigo. Umetxo zan Iñigo oraindik, alegia. Geroago Aita Inazio Biziemaille onen eragitez eta bere irakasle adierazle eta aldaerazle maixu bikain gertatuko da.

Gure *nor-izanean* joera asko daramazkigu. Gaitzetik ona banandu bearko da ona, edo onena aukeratzeko.

### 1517. Iñigo'ren ondamena

Amabostenbat urte zituen Iñigok Arevalora bidali zutenean. Ama illa zuen, bai ordea aita bizi.

Velázquez de Cuéllar-tar Ion'ek bere Jauregui aberats eta ospetsuan onartu zuen.

*Ion'ek Inigo gaztea bere semezat artuko du, eta itz eman ere bai, bere beste semeen bat bezela ongi ikasia eta azia izango zela. Ez ziren ordea gauzak, uste eta agindu bezela gertatu.*

Don Fernando, Aragoi'ko erregea, Arevalon aste bat edo bi egon ondoren, Madrigal' 1516'ko urterillaren 23 gn. il zen. Bere Andre, Aragoi'ko Erregiñari, Alargun saria zegokionez ormitu zion. Sari onen oiñarria Napoles'en —Italian— zeuzkan aberastasunetatik artzekoa zen. Orrela Gemana de Foix Erregin Alargunaren oiñorde bizikaia izango zuen.

Don Carlos I garai artan Brusselas'en zegoen. An erabaki zuen Dña. Germanaren bizikaikotzat oiñarria, Arevalo, Madrigal eta Olmedo'ren bizkarrean zegoela. Au da, Castilla'n ez, Aragoi'n.

Jon Velázquez de Cuellar'ek ez zuen Don Carlos'en erabaki au ontzat artu. Erri oien etorki -ondasunak Castilla- erregetzarenak bait ziran legez, au da, mugigaitz eta kendueziñezkoak.

Orra or gure Joan Jauna, bere zintzotasun eta zeaztasun legearen jarraitzaille leial beti izana, orain Don Carlos Erregearen aurka gerlakari.

Ezin ordea gerraldiari berez eutsi. Jon Cuella'ek bai Arevalo eta bai zituen beste, ondasunak oro, Cisneros Cardenal'en Dr. Cornejo guda gidariaren mende utzi bearrean gelditu da eta Madrid'era doa Joan Cuellar Cisneros'en esanean. Jon Jauna ezin ain menpetua bizi, eta laister, urte berean, dagonillaren amabigarrenean, Madrid'en il zen. An bere alboan ote zan Inigo ain serbitzari leiala?

Jon Velázquez Jauna il da urtezero, 1520 gn., Carlos V Alemaniako Kaiser'ak, agiri bat argitaratu zuen; itz garbietan bere lengo utsez damuturik agertzen zen, oker jokatu bait zun... alegia Castilla-ko Erregeenak Aragoiko Erregiñari bizikai oiñari ezarri bait zizkion legez aurka. Inigo, oraindik Najeran bizi zalarik, Don Karlos Emperadoreak ofizialki agiribidez aitortzen zuen Inigo'ren Nagusi izan zan Jon de Velázquez gerratea jauzitze artan zintzoki eta legebidez jokatu zuela. Inigo biotz biotzez poztu zan, naiz Don Carlos'en damua ain berandu etorri.

Don Juan'en zoritxarrak Inigo'ri buruauste gogorra sorerazi zion. Erregin Germana'ren gorroto-zarpeak arrapatuak zeuzkan Dña. Maria, bereakin bai eta Inigo. Ez zuen Inigo'k bere mende inolakoz serbitu nai. Arevalo'tik aldendu bear nai eta nai ez... Loyola aldera berriz jo? Gurasoak illak ziren. Lengo Dorre Etxearen Nagusi maiorazgo Martin bizi zen: artuko nai zuen onek ogeita sei urte zeuzkan anai gaztena guztiona izan zen etxe Dorre artan?

Don Juan'en alargun Maria de Velasco ezer utsean gelditu zen. Inigo alaere bere aldeko zuen... Berak ere beti maite onartu zuen. Inigo'rentzako irteera onaren billaka zebillen; bai eta burutu ere, Inigorentzako, Mariaren ustez, onena eta egokiena: zijoala Duque de Naxera'ren gana. Mariak bere sendikoa zuen Don Antonio de Naxera. Onetxek ongi artuko zuen Inigo, bai eta ere aurrera irtebiden bat edo beste eskuratuko zion Loiola'tar gazteari, gizon bizkor eta leialari.

Alkarrizketa laburtxo bat erabili zuten bien artean. Esker onekoa bai Iñigo... Mariarekin geldituko zan bai bere etxeoandeari laguntzeko... baño irteera bat bear eta nai biek. Bere apurtxoetatik Mariak zaldi pare bat atondu zitzaion Iñigo'ri; Mariak bere-diru toxatik nolabait osatu zitun 500 eskutu. Ola abiatu zen Iñigo beste biziera baten billa nunbait.

Duke de Naxera bait zan, bai eta ere Conde de Treviño; oez gainera orain 1516'gn maiatzeko 22'gn, Iruñean ziñ emanda, Errege ordezkari, Guda-agintari nagusi eta Nafarroako Erki-jaurleri izendatua izan zen bat baten. Iñigok bait zekin bai nor izango zen bere Nagusi berri... Onen Aita Don Pedro I ezaguna egiten zitzaion; au ordea 1515'gn otsailen il zen. Aren seme zen oraingo II Dukea.

Iñigok Loyolatik Arevalo'era elduta eta gero azken agurra emateraino 15 urte igaroko ditu. Uda azken aldean 1517'gn abiatu zan Tordillas edo Arevalo bertatik. An joan zen Castilla'ko bide zuzen eta luzean zear Loyola'tar gazteen goibel, bakar-tsu, lurperatua, makur... Atzen gelditu ziran urte aiei ezta begiratu ez zuen nai; amets zoragarria, bai, baino orain trumo eta tximista, lañu beltzetatik kazkabar eta txingorte biurtu bait zitzaizkion. Aurreraruntz ikus-pegia ez zuen usteontsu: Franziako Errege Franciscok zabalduak zeuzkan Pirineo menditan zelatariak ikuxka nundiko mendate zear beste aldeko lurraldeak —Carlos I'enak alegia— indarrez Franziaren mende ezartzeko. Don Ion Velazquez ere beti kezka oietan bizi zen.

Alaz ta guztiz Iñigo'k negar egiten zuen Don Ion gogoratu bakoitzean. Asko ziren Brusselas'ko Erregetegian Franzia'koari narda asko ziotenak eta beren andinaiak Castilla'ko Cuellar dirunzaindarigain oro begi zirenak, noiz eroriko edo baztertu, noiz bere aberastasun ugariak bereganatu. Velazquez'ekin Iñigok ere zorigailteaz aozpezka, lurra jo zun. Beintzat Andre Maria, bere amaordekoari eskerrak, zaldi pare bat... txampon batzuk jaso zituen...

Valladolid uri eder eta atsegintzat ezaguna zen nunnai. Cuellar'ko Joan Jaunak ere ba zeuken an bere bizileku egokia, Castellako diruzain nagusiari zegokiona, bere eginkizuna ondo eta zuzen bete zezan.

Orain etxe gela aiek uts eta iñorgabe zeudela jakin zuen Iñigok. Loyola'tar gazteak, egonaldi batzuk an egin oi zitun: bere Anai Jauregiko Nagusi Martinek bazekin ori. Garai ontan ordea dena itzulikatua zegon... Lengo arrokeri aiek, izen aundi irabazi naikeriek, alako emakumezaletasunek... bein erori eta lurjoez ez gero, aurki ustel usaia zabaltzen dute.

Valladolid zear ara eta ona ibilli, eta lehen bait lehen irten eta Burgos'ko bide zuzena artu zuen. Castilla'ko Uriburu-ra eldu ala, biotzkadak gogor astintzen zuen bere naia, bidean gelditzeko...

Ala begiztatu zuen Briviesca: biotzkadak indartsuago...: bere barrenetan egoera ezin nastuagoa zebilkion. Bakarralde nai zuen eta bakarlekukoa norbaitekin alkariz-keta lasaren bidez, pakeotzantasunean Kristogandik biotzean barkamena jaso.

Alako baten Oña'ko Benediktino Lekaideen Etxeaundia begiztatu du. Ezaguna zuen... Noizik bein antxe gertatu di zan Iñigo Santuaren illobi aurrean belaunikatzeko. Bataioz gero S. Iñigo baitzuen bere zaindari.

An da belauniko... bakarrik. Alako batean Eneko Santuaren Illobira begiak jasotzen ditu. Bere burua makur, eta adi-adi barrenen zerbait aditu naiko balu bezela...

Noizik bein ingurura ere begiratzen du, norbait etorriko ote zan zai. Bai... bai, bazetorren: eleiz atetan bi zaldi ikusiko bait zituzten. Bazetorren poliki, anak motel. Iñigo ere poliki abiatu zitzaion... erregu eske, bearrean zegon eta estu. Don Juan'enak esaten lasterka ta larri... Benediktinoak bazekizkin... aundiegi izan ziran monastegiko ormak berak ez gaintzeko. Iñigo bere «etxekoa» zan: orra dena esan. Negarrak eldu zion; asi zen esanez... Madrid'en illartekoak... Gero, bai eta bere barnekoak. Benediktinoak ondo sumatu zuen, aitormena zala gizon gazte ark esaten ziona...

Iñigo berriro Eneko santuaren Illobiaren aurrean belauniko zegoen. Benediktinoak antxe utzi Iñigo, ta... poliki poliki alde egin zuen.

Illobiaren ondoan txanpon batzuk utzi, eta Iñigo ere joan zen. Burebako bidea artu du, Montes de Oca'ondotik Pancorbon'sartu da. An bizi ziran Oñez'tarrak: Iñigok ezagunak zituen. Biotz zabala zekarren. Ez ala ere berrixu: gauza negargarriak izan ziran azkeneko aiek Arevalo eta Madrid'en. Batez ere jakin nai zuen nun arkituko ote zuen Naxera'ko Dukea.

Gau bat beretzako, eta zaldientzako artu..., ta Iñigo Dukearengana abiatu zen. Navarreten utzi zion onek bere Jauregiaren alboan etxetzo egokia. Iñigo onartua izan zen. Atzekoak atzean utzi eta... bizi berria zetorkion II Dukearen mende.

### 1521-1523. Loiola'tik-Jerusalen'era

Franzitarrak Bearnen 12.000 oiñezko gudari, 800 lantzari eta 29 kañoi (oetako 10 lodiera aundikoak) bilduta zeuzkaten; Andres de Foix, Asparros'ko Jauna zuten Guda-gidari. Alako baten, 1521'ko maiatzaren asieran, Iruñera urreratu eta 15-20 egunetan kañoiakin, aundienakin ere bai, Iruñeko Gaztelu jo ta jo asi ziren.

Iñigo an zan Gaztelu-babeslari. Iñigo berak bere zarrerian ola kontatu zuen: «kañoiak aldi batean jo eta jo aritu ondoren, bombardak batek ankan asmatu zion eta osoro puskatu; eta pelota anka bien tartean pasa zelako, bestea ere oso zauritu zitzaion». Gazteluaren jabeak ondoren, Iñigo zauritua gizabide osoz artu zuten. Iñigo orandik amabi edo amabost egun Iruñean iraun ondoren, azkenik esku obe batean bere lurraldera eramana izan zen.

Bere Dorre-etxean gero eta gaizkiago zijoan; iltzeko zorian erori zen. San Pedro eta San Paulo bezperan osagilleek ziotenez, gauerdarako hobetzen asten ez bada, arenak egiña du. Bai ordea asi, eta andik egun batzuetara iltzeko zoritik atera zalakoa

iritzi zioten. Alaz ta guztiz, sendagilleek oraindik zeregin asko izan zuten, aren ezur aiekin... baña, azkenik, —Ignaziok zionez— «gure Jauna osasuna ematen joan zitzaion», ala ere «obean egon bearra zeukan».

Une ontantxe asi da, oraindik urrutitik, Jaunak ixilka bezela egin nai zion *deitza*. Iñigok gogozko zituen zaldun-nobelarik ez zegoela Dorrean... eta erdaraz idatzitako *Vita Christi* eta *Santuen bizitzak* zauzkena, ohe albora ekarri zizkion bere koñata Magdalenak... Asi ere asi zan irakurtzen, irakurri ala atsegin geiako artzen zuela... Baña... len lengo emakume burutazioak erabiltzen zituen... Au ordea sumatu zun: «mundukoaz pensatzean, bizi gozatzen zuela; baina ondoren aspertuta gogoan uztean, bere burua lehor eta goibel aurkitzen zuela. Aitzitik, Jerusalemenera oinutsik joan behar zuela... gogoan santuk egiten ikusitako penitentzia guziak egin behar zituela pentsatzean, eta orduan bakarrik artzen zuen poza... bai asperturik utzi eta gero ere, pozez eta alai gelditzen zen». Poliki poliki oartu zen barnea arrotxen zoten espirituak ezberdinak zirela: «bata deabruena, bestea Jainkoarena».

Ikasbide onetatik ez zuen argi gutxi atera: lehengo bizitza ausnartu ta penitenti aundia egin beharra zeukela.

Orduan Jainkoaren deia aditzen duela uste zun: Sendatu bezin laister, Jerusalemenera joan nai du. Jainkoa maite duen biotzak nai izaten duen aina zigor hartuz eta barau eginez... Garai ontan, Jaunaren dei ori zuzen aditzeko, behin gauez esna zegoela, *Andre Mariaren* irudia, *Jesus* haur santuarekin argi-argi ikusi du... Poz aundia artu du. Lehengo bizitzaz, aragikeriaz batez ere, ain nazkatua gelditu omen zen, esan ziotenez; harez gero ez zion haragigogorik txikienari amorerik eman.

Bai bere anaia, bai etxeko gainontzekoak, ageri zenetik igarriko dute, aren arimaren barruko aldaera bere sustraitaraino sartu zela.

Gure Jauna serbitzeko kemen aundia nabaritzen zuen bere baitan. Bere erabakiaz askotan pensatzen zuen; noiz osoro sendatu zai zai zegoen bidean abiatzeko.

Alako baten esan zion Anai Martini: «Jauna, *Najerako Dukeak*, dakizunez, badaki sendatu naizela. On izango da *Navarretera* joatea». Eta ala, mando baten gainean abiatu da.

Aurrena Montserrat'etik Barzelonara; emen ontzia artu eta Gaetan n. Erromara erramu-igandean iritxi da.

Montserratera joan zenean lendik herri aundi batean (*Igaladan* uste danez) soinean Jesusalenera eraman behar zuen jantzia erosi nahi izan zuen. Azkartxo, Manresan ia amaika illabete gelditu bait zan. Erromara eldutekoan, Aita Santuaren Bedeinkapena artzeko, urtebeteko atzerapena izango du.

Erromara eldu zenean martxoaren 29'garrena zen. Bereala saiatu da Aita Santuagandik Bedeinkapena Jerusalem'era erromes joateko eske: Bedeinkapenaren agiria martxoaren 31'garrenean idatzia eta emana da.

Eskabidea agertu zuen paperean Iñigo de Loyola jarri zuen, *latinez* idatzita, Enecus de Loyola: bait bazekin ez zala Ignacio bere izena. Enecus au zan «clericus pampilonensis diocesis», Iruñeako Eleizbarrutiko *eliz-gizona*. Aita Santuaren baietza Baticano'ko Archivoan jasota dago orain ere.

Erromatik Pazkoetan atera zen, aprilen 13 edo 14 garrenean. Padua sarreran,

*Inigo baxarik galduta zebillen, eta mirariz Kristo berbera agertu zitzaion. Erromatik Veneziaara, 600 bat kilometro dira, Inigo errenak oñez egin ditu, eskean, errezoetan, beti bere asmoak burutatzen.*

Uztaillaren 14 garrenean erromesak urontzian sartuadira. Agorrillaren 25' garrenean Jaffa —gaurko Tel Aviv— begiztatu zutenean, erromesak, Inigok ere bai, pozaren pozez *Te Deum* eta *Salve Regina* errezatzen asi ziran; baiño itxasontzitik jetxitzerik inori ez zitzaion utzi illaren 31' garrena arte. Azkenik, irailaren 4' garrenean erromesak Jerusalemene sartu ziren.

Urrengo egunez asi zan Inigo erromesakin Toki Santu aien ikustaldia egiten. Ibillaldi onen egunerokoa badegu: beste erromes Zebillen batek idatzia, suizotar *Peter Füssli*: egun ortan bertan, illaren bostgarrena, Sion mendia, Azken-Apari gela, Illobia-Basilica ikusi zuten; seigarrenean, Basilika ontan Jaunartzea eta arratsean Kurutzibidea; zazpigarrenean, Betania eta Oliamendi; zortzi eta bederatzigarrenetan, Betlén; amargarrenean, Josafat deritzen mendartea eta Cedrón Erreka; 11-12 gabaz Illobi Santuan; 12-13 atseden egunak; 14 eta 15 garrenetan, Jerico eta Jordan; 16 garrenetik 22' raino, Jerusalemene.

Azken egun oetan Inigok tinko eta sendo zeuken Loiolatik zekarren asmoa: «Aren erabaki sendoa Jerusalemene gelditzea zen, Toki Santuak beti ikustatzen». Itxas ontziko azkeneko alditan «gure Jauna askotan agertzen zitzaion, eta ark poz eta indar aundia ematen zion». Orain Jerusalem eta Toki Santu guztiak ikusi ondoren, bizi bizi len lengo biotzkadak berritu ziran: lengo debozioen gainera, *arimei laguntzeko asmoa zuen*. Zerbait zuzena bere elbururu artuko bear zuen, beste erromesak utzita, an bertan *gelditu nai bait zun*.

Erromesaren Lekuko-Zaindari zan Franziskanoari, bere debozioa agertu zion garbi garbi, an bertan gelditzekoa. Ala ere arimei laguntzeko asmoak ez zizkion azaldu. Bien artean pixka bat alkarrekin jardun eta, azkenik erabaki zuen Guardianak, Beren Buru zan Provinziala, etortzekoa zala, Belenen bait zegon.

Deitu zion urrengoa Inigori Zaindari-burun aldetik, iritxiaren bai zen. Inigo'ren gelditu-erabakia, ondo pentsatu zuen Buru Zanak; eta epaitu zuen ez zala onargarria; Inigo ere gertu zedilla biharamunean erromesekin joateko.

Inigo'k bere aldetik erantzun zion, erabakia oso sendo artua zeukala; ez zuela ezerगतik betegabe uztea pentsatzen; pekatura behartzeko gauzarik ez bazan behintzat, ez zuela erabakia beldurrगतik utziko. Zaindari-buruak bere aldetik ere bota zion Inigo'ri: *Erromako Aulkitik* artutako aginpiderik bazeukala joan arazteko..., esana bete nahi ez zutenak eskomunikatzeko...

Buldak ere erakutsi nai zizkion... Inigok apal erantzun zion ez zeukala ikusi beharrik... Eta azkenik beteko zuela Eleizordezkarien esana.

Au bukatu ondoren, lehengo tokira itzultzean, bere artean onela zion Inigok: *Toki Santuetan Jaunak ura gelditzea ez zuen nai*.

*Dei-ots berria Jaunarena*. Jaunaren deia, Inigo'k Loiola ez gero entzun zuena..., ez zan Toki Santuetan gelditu.

Jaunaren Deia naiz lañu artean argitzen asi zitzaion Iñigori. Alde batetik, Jaunak ura gelditzea ez zuen nai. Bestetik, garbi ikusi zuen bai eta ere entzun arimek laguntzeko dei-otsa. Asmo au aurreneko aldiz, naiz oraindik bere barrenetan, orain adierazi digu.

### 1524-1527 Ikasle-biziera

Iraillaren 23'gn gabeko amarretan Erromes guztiek Jerusalemendik irten eta itxasertz aldera abiatu ziren: Toki Santu aiek atzeralde illunetan galdu zitun Iñigo'k. Pozgarri izen ziren Iñigo-rentzat Leku aietan igaro zituen ogei egun aiek. Antxe gelditu nai zuen... baño Goiko Jaunak adierazi zion bere ordezkarien aginduaren bidez ez zuela nai Iñigoan gelditzerik.

Itxasertzera eldutzeko ibillaldi luze eta zailla: lurralde aiek lapurren mende bait zeuden. Urrillaren amalau garrenean azkenik Chipreko Larnaca Kaian lurreratu ziren. Chipretetik itxasoz Veneziaruntz jo zutenean azillako aurrenetan ziren. Veneziaako kalekaietan Ontzia utzi zutenean ba zan 1524'go urtarillaren erdialdea. Ogei eguntxo an Toki Santuetan... Jerusalemendik Veneziarano iru illebete terdi... Bai luze, bai negargarri...

Lurrera jetxi orduko Iñigo'ri barrenetan sortu zitzaion urteetan izango zuen burutazioa. Jerusalem-en geio ez gelditu... an arimen onerako lanik ez egin... Bizi bide berriren bat aukeratu bearke du, Jaunaren dei-ots berria entzun eta bizkor betetzeko... Ori zuen bere barreneko estutasuna... Ori zuen bere otoia.

### 1524. Urrilla. Venezian.

Venezian utzi zuen Iñigo'k itxas ontzia. Itzultzerik ez zegon. An Loyolan burutan erabili zuen kezka, Leku Santutik etorri ezgero ze bide berri artuko ote zuen. Ari au Loyolan lotutzeke gelditu zan. Aritxo ori Venezian berriz zetorren. Lokarria lotu bearra.

Iñigo berberak agertu zigun burutazio onek, Jerusalemendik bir-itzuli ondoren, zekarkion kezka.

Saiaketa luzea Iñigok asi zuena bein Venezian lurreratu zenean. Berak itz oietan adierazi zuen bere larria: «Bera Jerusalem-en egotea Jainkoak nai ez zuela ulertu zutenean, beti berekiko *quid agendum* (zer egingo) ote zuen pentsatzen ari zen». Erabaki zuen Venezian bertan: *azkenik ikastera zaletua zegon* batez ere arimek lagundu ahal izateko. Ara or Iñigoren oinarria orain artzen zuen bideberrietarako.



Ikasle-bizierak oso ibilbide luzea eskatuko zion. Ara emen geltoki arduratsuenak,

*Inigo ikaslarik 1524-1527 urte bitartean bere lanerako euki zituenak.*

BARCELONA 1524-1526. Manresa'ra joan-etorri bat egin ondoren, arduratsu ikasten hasi zen. Mosen Ardévol zuen bere maixu. Bi urte orrela jardun, eta oso aurreratu ere, Filosofiarako gai zala, uste zuten bai bere maisu, bai eta Inigo'k azterkari berezitatzat aukeratu zuen Teologiako doktore norbaitek.

ALCALÁ 1526-1527, urte terdi. Estudioetan asi, baiña askotan eten bearrean aurkitu zen. Esames asko, gogojardunak eman naia ere bai... Gauza Toledoraino igo zan, eta Figueroa Bikarioaren eskuetan Inigorenak gelditu ziran azken auzi zai. Azkenik Notarioa gartzelara joan zen ari epaia irakurtzeko: aske joan zedilla... «eta ez zezatela sinisgaiez itzegin, lau urtebetez geiago ikasi arte». Epai onen aurrean «ezbai egon zen *zer egingo*», arimei laguntzeko. Ekainaren 20 edo 21 gn. (1527) irten zen *Alcalatik*.

SALAMANCA (1527). Dagonilla'ren azkenaldea da Salamanca'ra allegatu zaneke. Berealaxe Dominiko'tarren bat aukeratu zuen konfesatzeko. Onak Inigo bai eta Conventuko beste prailekin alkartu zuen. Ortik asi ziran eztabaidak... geroago notario'engana iritxi ziren izpide batzuk; oek ongi aztertubearrak zirela... eta notarioak, Inigo eta bereak gartzelara eramane bear zirela erabaki zuen. Azkenik Bicario General'ak epaikatatu zuen ez bizitzan, ez irakasketan ez ziela okerririk aurkitu. Jainkoaz ere itzegin zezaketela, «behin ere zer den pekatu astuna, zer arina erabaki gabe, lau urtebetez gehiago ikasi arte». Inigo'k apalki esan zuen epaikarien erabakia beteko zuela; baño, ezertan gaitzesi gabe, ahoa ixten zioten, eta ori ez zuen onartu nai; ez bait zioten urkoei ahal zuen bezala laguntzen uzten... Gartzelatik atera zituzten. Inigo Jainkoari *argia eskatzen* asi zan eta *zer egin bear zuen pensatzen*. Bai bazetozkion Barcelonan bezela asmo antzekoak religioan sartuko ote zan, edo orrela munduan ibili... Jainkoak uste on haundia ematen zion egingo zizkieten iseka eta irain guziak sufrutuko zituela...

### Paris 1528-1535

*Zer egingo ote zun galderak...* Inigo Salamancan bertan erabaki batzuek artzera eramane zuten. Batetik, eragozpen aundia aurkitzen zuen Salamancan egoteko, *arimei laguntzeko* atea itxi bait zioten. Bestetik ez zitun galdu lengo gogoak animei laguntzeko, eta ontarako lehenbizi *estudiatu egin bear*, Alcalá eta Salamancan baño zintzogo eta barren-barrendik. Egin-gogoa sortzen zitzaion *asmo bereko batzuk biltzeko* eta zeuzkanaik eusteko. Venezian asmo berria izan zuen ikaslaritzakoa; emen, Salamancan, beste bat agertu zitzaion Inigori: *asmo bereko batzuek bildu*, au da, *lagundi* bat eraiki. Lehen Alcalá eta Salamancan bilduak zeuzkenakin, ontan gelditu zan: itxo egin zezatela, ark Parisen bertan ikusi zezan aiek estudiatzeko biderik aurki zezakeenik.



Gartzelatik atera eta andik amabost edo hogeai egunera bakarrik abiatu zen, asto gaineen liburu batzuk zeramatzala. Orrela Paris-era abiatu zen gutxi gora behera otsaillan 1528 gn. (edo 27 gn., nola kontatu).

*Paris, 1528. Elerti* ikasle, edo *latin-keria* artu zitun *Monteagudo*'ko kolejoan. Azkartxo igoerazi zioten Barcelonako maixuek.

*Paris, 1529*, otsaillaren aurrenean *Artes* edo *Filosofia* asi. Garai ontan sortu zen bere adiskidetasuna Pedro Fabro eta Francisco Xabier'tarrarekin.

*Paris, 1532*, otsaillan, Filosofia'ko batxiller egiña.

*Paris, 1533*, martxoan, 13 gn. Filosofian licentia-maila artzeko azterketa.

*Paris, 1534*, jorrailla, *Magister Artium* mailan sartzen da.

*Teologia'ko ikastolan ere* jardun zuen: 1533'gn asieratik 1535'gn jorraillaren bitarte ontan, bi urte eta geiago Teologi-ikasleri. Alcalá eta Salamanca'ko auzie-paietan esan zioten lau urte zear teologi-ikasle izan bearke zuela. Beste bi urte betetzeko gelditu zaizkion. Bere garaian ikaslaritza ori lortzeak ainbat ordain bear ezarriko zion.

*Lagun batzuek ere bereganatu zituen.* Lengo aiek, Salamancan zai gelditu zirenak alegia, banaka banaka, aldera batera edo bestera guztiek Iñigo'gandik aldendu ziren. Aurrenekoen *izenak* emen ezarriko ditut:

*Pierre Favre* (Pedro Fabro), 1506'jaioa, Saboia'koa.

*Francisco de Xabier*, 1506'jaioa, Xabier, Naparrokoa.

*Diego Laínez*, 1512'jaioa Almazan'en (Soria, Castilla).

*Alfonso Salmeron*, 1515 Toledon jaioa.

*Simón Rodríguez*, 1510'jaioa Vouzela, Portugal.

*Nicolás Alfonso*, 1509'jaioa, Bobadilla del Campo'n (erri onen izenez ezagutua), Palenzia'n.

Arimei laguntzeko ez zuen nola naiko lagun artea nai-beste bere asmotarako. Salamanca bertan irten aurretik baldintzan ezarri zion bere buruari, biltzeko oiek «asmo bereko» izan bear zutela. Lagun elkartasuna bear litzake. Ez zekin Iñigo'k oraindik era ontara lagun dia sortuko zenik, nolako zeintasuna edo bereiztasuna izango zuenik: ori bai, nolabait, alkartu eta nunnahi asmo batekin arimei laguntzeko prest izan bearke zuketela.

Sei lagun oek banaka banaka, asmo berearen, billa Gogo-Jardunak, Iñigo zuzendari, egin zituzten. Franzisko Jasso eta Azpilcuetak, —*Xabier*, alegia— besteek baño beranduxego: guztiak *Magister*, Doktor, ziren; Xabier ordea *Magister Regens*, au da, benetako *maisú*: iru urtaldi-tarako itz emana zeukan. Beste lagunek Gogo-Jardunetan ari ziren garaia zen Xabier'en irugarren urtaldia, 1534. Xabier ordea 1529'gn.dik Iñigoren bizi-lagun zen. Astiro, eta ez errex, Iñigo'k lagun onen biotzaren billa jarraitu zuen: egiz, iru oek, Iñigo, Xabier, Fabro, iru bizi lagun oek egiz biurtu ziran «asmo berekoak».

Orregatik, sei lagun aiek Iñigo'rekin, larunbata zan egun ospetsuan, 1534'ko dagonillaren 15'garrean, au da, *Andre Maria Birgiñaren Zeruratzeko* Pestaburuan, goiz goizetik, zazpi gizon lagun Paris'inguruetako menditxo batera igo ziren, erdialdean zegon baselizatzora sartu, eta zazpi oetako bat, P. Fabro —apaiz bai zen— Meza asitzeko jantzita eta Aldarera igo zen: aspaldiko martiri Dionisio eta bere laguneri Rustico eta Eleuterio eskainira. Jaunartzeko garaikoan A. Fabrok, bere eskuetan Osti Santua zuelarik, bere sei laguneri begira, oen ziñ-eskeintza artu zuen, azkenik berak ere eskeintza Jaunari aitoren zion, au da: arimen onerako Jerusalemara joan eta beren bizitzan ematea. An gelditzerik irixten ez bazuten; edo itxasontzirrik erromesarako urte ontan ez bazan, beste urtebetez itxoingo zuten, zin itzatik aske geldituko ziren; eta Aita Santuaren oinetara joango... Gutxi gora bera zazpi gizon oek asmo bateko zirela eskaintz onen bidez ederki adierazi zuten.

Osasunez ez zebilen ongi. Osagileen ustea izan zen Iñigo'ri laguntzeko bere jaioterriko giroa beste biderik ez zegoela; lagunek ere asmo berbera onartzen zuten. Iñigo'k aditu egin zien. Goiko Jaunaren naimena ere biotzean zaramakin beti bizi: bera Jerusalemaren egotea ez zuela nai.

Azpeitiraruntz 1535'gn jorraillaren asieran abaitu zen. Bere lagunekin ontan gelditu zen: guztiak Venecia'ra, Italiara 1537 gn. urtarrillaren 25 gn. Iñigo an egongo zitzaizen zai.

Iñigo, bein osasuna Azpeitiako giroakin sendatu eta pizkortu-ta, Castell-aldera joan zen bere lagunaren arazoak betetzera. Gero Valencian itxasontzira igo, *Genovara* aillagatu ondoren, *Boloniako* bidea hartu zuen; emen aldi baten gaixo erori zen. Gero *Veneciara* joan zen, berean.

Iñigok 1533'gn asieratik, Teologia-ren ikaskuntzan gogotik jardun zuen bai Dominiko bai eta Franciscanoen artean.

Bere buruaren aldetik ez zeukan kezkarik: berak dionez, «garai ontan filosofia kurtsoa igaro zuen eta teologia urte batzutan ikasi eta lagunak irabazi», au da, oek dira ain zuzen Iñigok artu zitun asmoak Salamancan Paris'era aldatzea erabakitzeokan. Montmartre-n ordurako erabakia zeukaten lagun guztiek zer egin bear zuten: Jerusalemara joateko garaia izan arte Paris'en bertan euren ikasketan jarrai. Itz eman zuten 1537. urtean abiatzekoan San Paulo biurtutako egunean, ta gero Venecian guztiok Iñigo'kin alkartuko ziren.

Venecian batez ere teologia ikastera zuzendu nai izan zituen bere indarrak. Andrea Lipomanik bere etxean bizilekua eskaini zion: etxe zabala, paketsua, estudioetako egokia, biblioteka aundia ere bait zuen. Iñigok teologiakin batera *Gogojardunak* ere berriz ikusi eta idatzi nai zitun erabat, bai eta latinera itzuli. Aldian aldi arimegi laguntzeko zer egiñak ekiten zitun. Baño batez ere teologia zuen bere lana, lau urte oso bete arte: au izango zan 1537'gn epaill-erdiaño.

Uste gabe Paris-ko lagundia etorri zan. Alkarekin Paris'en itz egin zuten, 1537'gn Urtarrillaz 25'abiatzekoak ziren; guda bizitu zan berriz, eta azaron 1536 gn. abiatu ziren. Iñigo'k aurreneko eginbearretan Venezian lagundu zion, baño bere eginkizuna teologia estudiatzea zan, eta ortara sartu zen berriz ere.

«**Nik nai zaitut gure serbitzari**»

Urrillaren zortzigarrenean 1537'gn. Paris'tik etorri ziran an gelditutako lagunak. A.P. Fabro zuzendari zuela, sei ziran lagun aiek. Beste iru lagunekin geitu zan. Montmartren bildu zan batzarra. Oek ziren Pascasio Broët, francesa, apaiza; Juan Coduri, francesa; Claudio Le Jay, Saboiakoa, apaiza.

A.P. Fabrok ekarri zion Paristik Iñigo'ri Unibersitateko agiria: *Magister in artibus* zan Iñigo de Loyola'k urte terdi teologia ikasi zuela. Unibersitate-Agiri onek oi legez besterik ez zuen baiezten. Iñigok egiz 1533'ko epaillaren 13 gn-etik 1535'gn jorrraila arte ikaslari jardun zuen. Berak asmo zuen 1537'gn martxoan arte Venecian etengabe jarraitzeko.

Paris'ko lagun oek epaillaren 16'gn Erromara joan ziren, oitura zan bezela, Palestinarako baimena eta bedeinkapena artzeko. Aita Santu Paulo III nai zuten guztia erruz baieztu zien; bai eta nai baño geiago: *apaiz ez ziran lagunei* eskubidea baietsi *apaizgoa artzeko* iru jai edo igandetan, berak aukeratu lezakeen Gotzaiaren eskue-tatik.

Alaxe egin ere: *Juan Bataiatzaille Pestaburuan* apaizgintza artu zuten. Aurretik Iñigo'k garbi izateko eta behartsu bizitzeko zin-itza eman zuen.

*Urte artan* ez zen Jerusalem alderako itxasontzirik abiatu. Montmartren erabaki eta eskaini zuten erromes, itxasketarik ez balitz, urrengo urtekoaren zai itxo egingo zutela. Urte bete barru ez balitz, Erroman Aita Santuaren mende jarriko ziren.

Urte beteko egon-aldi au asi zanean, Iñigok lagunei aitortu zien, erabaki zuela, apaiz egin ondoren urte betez *meza eman gabe* egotea, bere burua gertutzen eta *Ama Birgiñari bere Semearekin jar zezala* eskatzen: au da, 1537 gn. eko San Juanetatik 1538'garrenekoraiño.

Urtea bete zitzaienen, bai Iñigo'k eta bai beste lagunak ere Erromara joateko gertu zegozen. Hiru edo lau taldetan irunakatu ziren: Iñigo *Fabro* eta *Lainez'*ekin abiatu zen; 1537'gn urrillaren azken alditan. Vicenza'tik Erromaraiño 250 km. ibilli bear zituzten. Erroman sartu baiño 14 km. aurretik elizatxo bat arkitu zuten. An sartu ziren. *La Storta* zen errixoaren izena. Bakartsu zegon, oso egoki iru gizon aiek bakartadean otoi aldia egiteko.

Iñigo berberak A.Gz. Camara'ri kondatu zion: «*Egun batean, Erromara eldu baino mila batzuk lehenago, eleiza batean zegoela eta oitotz egiñik, hain aldatua nabaritu zuen bere anima eta hain argi ikusi zuen bera Jainko Aitak Kristo Semearekin jartzen zuela, ez litzakeela dudatzen ausartuko, baizik Jainko Aitak bere Semearekin jartzen zuela*».

Aita Gz. Camara da, gertari oen idatzlaria. A. Ignazio'k au kontatu zionean esan zion Lainezek beste zeastasun batzuekin au kondatzen zuela. A. Ignaziok bereala erantzun zion A. Lainezenak egizkoak zirela; A. Inazio berak ez zituela gogoratzen ain zearo: baiño ziur zegoela, egia besterik ez zuela esan.

Lainez'en aipamena badakigu. Erroman, jesuiten Nagusi zala, 1559 gn., itzalditxo batean guztientzako esaten zioen: auxegatik batez ere A. Ignaziok gure Lagundiari *Jesus*'en izena ezarri ziola. Au gerta omen zan Erromara eldu baino lentxoago, Eucaristia artzekoan. Bein baten, Kristo, ikuskizun-bidez, agertu zitzaion, gurutzea bere bizkarrean zeramala. *Aita Jainkoak* esaten zion: Nai det Zuk, emengo au, zure Serbitzari artzea. Ala, Jesus'ek artu zuen, esanaz: «*Nai zaitut Gure Serbitzari*». Orregatik A. Inaziok oneraspen eta zaletasun aundia zuen izen onen alde, eta orrela nai izan zuen gure lagundiarentzat izentzat: *Jesus'en Lagundia*.

A. Ignazio eta A. Lainez'ek gertakizun bakarraren *bi ikuspegi* dauzkate, biek A. Ignazioren barrutik artuak. Bata zentzumen eta ezagumen barrenekoa, izpirituak bait baditu bere zentzuak. Lainez'ek zentzu oen bidez esandakoak entzun zizkion. Bestea, ikuspegia ez da, baizik beste barruko ikutu bezela. A. Inaziorena *barruko aldaketa* izan zan; bere anima aldatuak argitasun bereziakin *ikusi* zuen *ikusi* eziña: Jainko Aitak Kristo Semearekin jartzen zuela. Berez, eskaera au Inigok Ama Birgiñari egin oi zion onela: *berak*, Inigo bere Semearekin jar zezala. A. Inaziok ordea argi *ikusi* zuen Jainko Aitak berberak Inazio Kristo Semearekin jartzen zuela. Zer zan ordea Aitaren aldetik Inigo Semearekin jartze ori...?

Ez zitzaion A. Inaziori aaztu *La Storia*'ko gertakizun au. «*Eguneroko*» idatzi zuen urtealdi batzuetan. Geiena galdu zaigu, baño urtebetekoa badegu oraindik. Bere eskuz egunetik egunera idatzia da (2.II.1544-27.II.1545). Ona emen oroimen bat: «1544. *Otsaillaren 23 gn. Aldarea gertutzekoan (Mezarako) nere gogora Jesus etorri zatzaidanean*, berari jarraitzeko; iritziten nuen nere barnean, Kristo gure Lagundiaren Buru izatea garrantzitsuago zala, beti ziero beartsu bizitzeko, beste gizonen arteko arrazoiak baño... Gogorazio oetan jardun ala jantzitzekoan, beti eta beti geiago..., uste nun Trinitade txit Santuarena zala orrela agertzea eta Jesus nabari izatea, oroimenera etorri ere Aitak ni Semearekin jarri nindun ura».

Beste bein A. Ignaziok sakonki aztertu nai zituen ezerezean bizitzearen ongaitzak bizi ezker. Amairugarrenean onela idatzi zuen: «*Au ezereza aukeratu genduen amar lagunok*; guztiok, utsik gabe, artu gendun gure Burutzat Jesus berbera, gure Egille eta Jaun, bere Ikurriñaren mende joateko berriona zabalzera eta aolkatzera, au bada ain zuzen gure biziera». (A. Ignaziok bere eskuz 1544 gn. idatzia).

J. ITURRIOZ  
Loiolako Santulegitik

#### LA LLAMADA DE DIOS A IGNACIO DE LOYOLA

El niño Inigo estuvo destinado a tomar el estado clerical, pero su entrada como paje al servicio cercano a la corte y la consiguiente educación que recibe le aficionan

a la carrera de las armas, introduciéndole en círculos mundanos que le desvían de su primera «vocación». Un principio de conversión experimenta en una de sus últimas visitas de camino para su tierra al monasterio de Oña ante el sepulcro de su patrono. Herido en la defensa de Pamplona, las lecturas del *Flos Sanctorum* enderezan su vida y decide entregarse totalmente a Dios y a las almas. Vienen luego sus experiencias de Montserrat, que le confirman la nueva vocación, que cree poderla realizar en Tierra Santa, y que se frustra por rechazos de los guardianes o custodios de aquella tierra. Inicia sus estudios eclesiásticos para una mayor eficacia de su apostolado. Halla dificultades en Alcalá y Salamanca y se decide a seguir su carrera en la Universidad de París. Allí conquista a compañeros para su misión y fracasado una vez más en su intento de pasar a Tierra Santa con sus compañeros, se ponen al servicio de la Iglesia y de las almas a las órdenes del Papa. Al fin ha encontrado su vocación. Dios le ha llamado a fundar la Compañía de Jesús, que perpetúa su espíritu y su acción a través de los siglos.

#### IGNACE DE LOYOLA ET L'APPEL DE DIEU

L'enfant Iñigo était destiné à l'état clérical, mais son entrée comme page au service des sphères proches de la cour, et donc l'éducation qui s'ensuit lui font prendre goût à la carrière des armes, l'introduisant dans des cercles mondains qui le font dévier de sa première «vocation». En route pour ses terres, lors d'une de ses dernières visites au monastère de Oña, devant le sépulcre de son saint patron, il expérimente un début de conversion. Blessé lors de la défense de Pampelune, il corrige sa vie à la lecture du «*Flos sanctorum*» et il décide de se donner totalement à Dieu et aux âmes. Viennent ensuite ses expériences de Montserrat, qui lui confirment sa nouvelle vocation. Il croit pouvoir la réaliser en Terre Sainte, mais ce projet échoue à cause du rejet des «Gardiens» ou «Custodes» de ces lieux. Il commence alors des études ecclésiastiques pour une plus grande efficacité de son apostolat. Il trouve des difficultés à Alcalá et à Salamanque et il décide de continuer sa carrière à l'Université de Paris. Là, il conquiert des compagnons pour sa mission, et, après un nouvel échec dans sa tentative de passer en Terre Sainte avec ses disciples, ils se mettent au service de l'Eglise et des âmes sous les ordres du pape. Il a enfin trouvé sa vocation. Dieu l'a appelé à fonder la Compagnie de Jésus pour qu'elle perpétue son esprit et son action à travers les siècles.